

Buletineko gaiak:

1. Inauteriak, xumeagoak
2. 'Ikastola' aldizkariaren 247. Zenbakia
3. Truk txapelketa, martxoaren 12an
 - Eskolaz kanpokoak
 - Apartekoak

Temas del boletín:

1. Carnavales más sencillos
2. Número 247 de la revista 'Ikastola'
3. Campeonato de truk el 12 de marzo
 - Actividades extraescolares
 - Otros temas

Berri orokorrak

1. Inauteriak, xumeagoak

Ikastolan urteko planean kolore politez markatutako egunak izaten dira Inauteri jaien inguruak, eta bereziki ostirala. Aurten, kolorea mantenduko badugu ere, **antolatuko duguna xumeagoa** izango da, egoerak horrela eskatuta. Horiek aurrera emateko ditugun **irizpide nagusiak hauek** dira:

- Mailako burbuilak errespetatzea.
- Dantzak eta jantziak erabakitzerakoan taldeen edo norbanakoen altxortegian gordeta ditugunak berreskuratzea (etxeke ganbaran ditugun jantziak, urtez urte ikasitako dantzak...).
- Ikuslerik gabeko ekintzak antolatzea.
- Ikastolako ingurua apainduko dugu.

Antolaketa honek DBHko etapan egun horretako ordutegia birplanteatzea ekarri digu. Aurten ere, **otsailaren 25ean, ostirala, DBHko ordutegia 10:00etatik 13:00era** izango da.

Temas generales

1. Carnavales más sencillos

En el plan anual de la ikastola los días de Carnavales suelen ser días marcados con bonitos colores, sobre todo el viernes. Este año, aunque mantendremos el color, **lo que organizaremos será más modesto**, por las circunstancias. Los **principales criterios** que tenemos para llevarlos a cabo son los siguientes:

- Respeto a las burbujas.
- Adquirir las prendas que guardamos en la tesorería de grupos o particulares a la hora de decidir las danzas y el vestuario (prendas en el desván de casa, bailes aprendidos año tras año).
- Organización de actividades sin público.
- Decoraremos el entorno de la ikastola.

Esta organización nos ha llevado a replantearnos el horario de ese día **en la etapa de la ESO**. Este año también, **viernes 25 de febrero, su horario será de 10:00 a 13:00**.



OHAR GARRANTZITSUAK:

- **DBHko ikasleen jantokiko zerbitzua** ohiko ordutegian izango da. Ordura arte zaintza zerbitzua izango dute.

- **JANTOKIAN aldaketaren bat (alta, baja)** egiteko azken eguna **otsailaren 22a**, asteartea, izango da, idazkaritzako ordutegian.

Horretarako, inprimakia bete:

<https://forms.gle/T9DKCw1dKtcjQE9e6>.

Denboraz kanpo adierazitako bajak kobratu egingo ditugu.

- **Torradak:** ostiralerako gelara nork ekarriko dituen tutore bakoitzak antolatuko du.

- **Otsailak 28 eta martxoak 1** ez da eskolarik izango.

2. 'Ikastola' aldizkariaren 247. zenbakia

Zuen seme-alaben eskutik, gaur jasoko duzue **zuen etxeetan Ikastola aldizkariaren 247. zenbakia**.

3. Truk txapelketa egingo dute martxoaren 12an

HIRU HIRUKO txapelketaren bigarren jardunaldia ospatzera goaz: **martxoaren 12, 16:00etan ikastolako frontoian**. DBH4ko ikasleak ikasturte bukaerarako bidaia finantzatzeko antolatutako truk txapelketa izango da. Sari bikainak izango dira berriz ere, ANIMATU!

OBSERVACIONES IMPORTANTES:

- *El servicio de comedor del alumnado de la ESO será en el horario habitual. Tendrán servicio de custodia hasta entonces.*

- *El plazo para avisar de **LOS CAMBIOS (altas o bajas) DEL COMEDOR** finalizará el 22 de febrero, martes, en horario de secretaría. **Para ello rellenad el siguiente formulario:***

<https://forms.gle/T9DKCw1dKtcjQE9e6>. Las bajas que se avisen después se cobrarán.

- ***Torrijas:** cada tutor-a organizará quién las trae a clase el viernes.*

- ***El 28 de febrero y 1 de marzo** no habrá clases.*

2. Número 247 de la revista 'Ikastola'

*De manos de vuestros hijos, hoy recibiréis en vuestras casas el número **247 de la revista 'Ikastola'**.*

3. Campeonato de Truk el 12 de marzo

*Vamos a celebrar la segunda jornada del TRES de TRES: el **12 de marzo, a las 16:00 en el frontón de la ikastola**. Se trata de un campeonato de truk organizado por el alumnado de la ESO para financiar su viaje de fin de curso. Los premios volverán a ser excelentes, ¡ANIMAOS!*



Eskolaz kanpoko ekintzak

1. Haurtzaro Mendi Taldearen irteera: otsailak 27

Datorren igandean, otsailak 27, egingo du Haurtzaro Mendi Taldeak urteko bigarren irteera, goizez, Oiartzunen: **Oiartzun-Urkabe-Beloaga-Oiartzun**, Done Eztebe plazatik abiatuta.

Informazio guztia atxikitako orrialdean

duzue. **Izena, berriz, inprimaki honetan eman dezakezue, otsailaren 24ra arte:**

<https://forms.gle/uYeoz8XRQ7pYhsSNA>

Apartekoak

1. Treba Gurasoak hitzaldia, otsailaren 28an

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak, udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuen laguntzarekin, **Gipuzkoako gurasoen eskura jarri duen doako prestakuntza-ekimena** da TREBA. Programa honek haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetu nahi ditu, gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz.

Urrian pasatu genizuen formazioen katalogoa, eta Oiartzunen interesekoak suertatu diren gaiekin, lehen hitzaldia antolatu dute **Nola landu sexualitatea haur eta nerabeekin?** izenburupean.

Informazio guztia, jarraian:

Actividades extraescolares

1. Salida de Haurtzaro Mendi Taldea: 27 de febrero

*El próximo domingo, 27 de febrero, Haurtzaro Mendi Taldea realizará la segunda salida del año, por la mañana: **Oiartzun-Urkabe-Beloaga-Oiartzun**, saliendo desde la plaza Done Eztebe.*

Toda la información la tenéis en la página adjunta. Podéis inscribiros en el siguiente formulario, hasta el 24 de febrero: <https://forms.gle/uYeoz8XRQ7pYhsSNA>

Otros temas

1. Formación Treba para padres y madres, el día 28

TREBA es una iniciativa de formación gratuita que la Dirección de Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con la colaboración de los servicios de promoción de la infancia, adolescencia y juventud de los ayuntamientos, ha puesto a disposición de todos los padres y madres de Gipuzkoa. Este programa pretende mejorar la calidad de vida y las oportunidades de los niños, niñas y adolescentes, formando a los padres y madres en competencias educativas. En octubre os pasamos el catálogo de formaciones, y con temas que han resultado de interés en Oiartzun, han organizado una primera charla titulada **¿Cómo trabajar la sexualidad con niños-as y adolescentes?** Toda la formación a continuación:



- **Data:** otsailak 28, astelehena
- **Ordua:** 17:00
- **Lekua:** Udaletxeko pleno aretoan
- **Trebatzailea:** Nerea Lores Martikorena
- **Norentzako:** haur eta nerabeen guraso-entzako
- **Hizkuntza:** euskara
- **Doan**
- **Informazio gehiago:** 943 490 142 / kirola@oiartzun.eus

- **Fecha:** 28 de febrero, lunes
- **Hora:** 17:00
- **Lugar:** salón de plenos del Ayuntamiento
- **Instructora:** Nerea Lores Martikorena
- **Para quién:** para padres y madres de niños-as y adolescentes
- **Idioma:** euskera
- **Gratis**
- **Más información:** 943 490 142 / kirola@oiartzun.eus

2. Hikalaguna egitasmoa: Ingo ñeu? Ingo yeu?

Denborarekin, hikaren transmisioa moztu egin dun/duk etxe askotan eta transmisioaren etenak hika desagertzeko bidean jarri din/dik gaur arte. Horregatik, udaberri honetarako Hikalaguna antolatatu ñeu/yeu!

Hikalaguna herritarren mingainak hika dantzan jartzeko egitasmoa dun/duk. Ohitura falta eta ezjakintasuna ttiñeu/ttiyeu oztopo handienak; eta horiei aurre egitera heldu dun/duk Hikalaguna!

Hika praktikatzeko gunek sortzea dun/duk asmoa. Adibidez, asteartetan bidegorrian hika eginez ibili, edo ostegunetan tragoa hika eginez hartu... Anima ñai/yai eta eman zan/zak izena!

Ez ahaztu, akatsak egitea ari garen seinale izango dun/duk! Eta bestela, patrikan eramateko txuleta-liburuxka prestatu ñeu/yeu! **Eman izena!**

2. Iniciativa Hikalaguna: ¿lo hacemos?

Con el tiempo, la transmisión del hika ha sido cortada en muchos hogares y la interrupción de la transmisión le ha puesto en vías de desaparición. Por eso, para esta primavera han organizado la iniciativa Hikalaguna.

Hikalaguna es un proyecto para poner las lenguas de los y las oiartzuarras a tutear. La falta de costumbre y la ignorancia son los mayores obstáculos; ¡y para combatirlos ha llegado Hikalaguna! **La idea es crear zonas y momentos para practicar el hika.** Por ejemplo, tutear los martes en el bidegorri, o tomando el trago con los amigos y amigas el jueves... ¡Animaos y apuntaos!

No lo olvides, ¡cometer errores será una señal de que estamos practicando! Y si no, preparad el folleto de chuletas para llevar en el bolsillo. **¡Apúntaos!**



Bakarka:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSe442hvgmvfn5PF5ZPVsNtbKokmSojthzmjlecL6IQGVWxbg/viewform>

Taldeka:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfV8r7etZbaB0bAODbxxgLceDJIVohHJ3HKmcP838z8afmRSA/viewform>

3. Hirukideren aurkezpena, otsailaren 24an

Ostegunean, **otsailaren 24an**, Hirukidetik online informazio-saio bat egingo du Oarsoaldeko (Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzun) **familia ugari-entzat. 19:00etan izango da, Zoom plataformaren bidez, eta Youtubetik ere** jarraitu ahal izango da.

Saio horretan, **federazioak udalerrri horietan dituen zerbitzu eta jardueren berri emango dute**, eta familia ugariak kolektiboaren laguntza eta hobari publikoei buruzko informazio zehatza jaso ahal izango dute, baita haien beharren berri eman ere.

Informazio guztia, atxikitako orrialdean.

4. Txernobyngo haurrak etxean hartzeko deia

Emaezu arnasa kanpainaren bidez, Chernobilen Lagunak elkarteak **familiak erakarri nahi ditu uztailean eta abuztuan Ukrainako adingabeak etxean hartzeko.**

A solas:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSe442hvgmvfn5PF5ZPVsNtbKokmSojthzmjlecL6IQGVWxbg/viewform>

En grupo:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfV8r7etZbaB0bAODbxxgLceDJIVohHJ3HKmcP838z8afmRSA/viewform>

3. Presentación de Hirukide, el 24 de febrero

El jueves, 24 de febrero, Hirukide realizará una sesión informativa online **para familias numerosas** de Oarsoaldea (Errenteria, Pasaia, Lezo y Oiartzun). **Será a las 19:00, a través de la plataforma Zoom, y también se podrá seguir desde Youtube.**

En esta sesión se informará de **los servicios y actividades de la federación en estos municipios** y las familias numerosas podrán recibir información detallada de las ayudas y bonificaciones públicas del colectivo, así como dar cuenta de sus necesidades.

Toda la información, en la página adjunta.

4. Llamamiento para acoger niños-as de Chernóbil

A través de la campaña **Dales aliento**, Chernobilen Lagunak pretende atraer a **familias para acoger a menores ucranianos en julio y agosto.**



Erradioaktibitateak haurren osasunean eragiten dituen ondorioei, pandemiak eta Errusiarekin sortutako krisiak sortutako tentsioa gehitu behar zaizkie une honetan. "Beldur handiz bizi gara, eta nahiko izututa gaude, egoera tirabiratsua delako", onartu du elkarteak Ivankiveko (Kiev) Doviriako gizarte-zentroko Inna Sheremet bitartekariak.

Datorren **martxoaren 15ean amaituko da izena emateko epea**, udan haurrak hartzeko interesa duten pertsonentzat.

Euskal GKEa osatzen duten familiek hogeitaz inguru talde bat hartzen dute udan beren etxeetan, **berrogei bat egunez**. Hala ere, pandemiak zapuztu egin zituen 2020ko eta 2021eko udetarako aurreikusita zeuden haur ukrainarren egonaldia.

Egitasmoan parte hartzen duten **haurrak eta nerabeak 7 eta 17 urte bitartekoak dira**, eta Txernobyngo hondamendi nuklearrak kaltetutako eremuan bizi dira. Haien familiek ez dute baliabide ekonomiko propiorik ingurune horretatik aldentzeko, batez ere udan, tenperatura altuen ondorioz erradioaktibitatea kutsadura-maila gorenera iristen denean.

Kanpainari buruzko ohar bat atxikita duzue. Informazio gehiago behar izanez gero, www.chernobilenlagunak.org webgunea ere bisita dezakezue.

A los efectos de la radiactividad en la salud de los niños, se suma en estos momentos la tensión generada por la pandemia y la crisis generada con Rusia. "Vivimos con mucho miedo y estamos bastante asustados porque la situación es tensa", ha admitido la mediadora Inna Sheremet, del centro social de Doviria en Ivankive, Kiev.

El próximo **15 de marzo finaliza el plazo para la inscripción** de las personas con interés para acoger niños-as en verano.

Las familias que conforman la ONG vasca acogen en verano a un grupo de veinte menores de edad en sus domicilios **durante unos cuarenta días**. Sin embargo, la pandemia agravó las estancias de niños ucranianos previstas para los veranos de 2020 y 2021.

Los niños y niñas y adolescentes que participan en el proyecto tienen **entre 7 y 17 años** y viven en la zona afectada por el desastre nuclear de Chernóbil. Sus familias carecen de recursos económicos propios para alejarse de este entorno, sobre todo en verano, cuando la radioactividad llega al máximo nivel de contaminación debido a las altas temperaturas.

Se adjunta nota relativa a la campaña. Si necesitáis más información podéis visitar también la web www.chernobilenlagunak.org.

